

FAMILIA UGARIEN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAKO 2017. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	Ekonomia Sailsa
INSTRUKTOREA:	Ekonomiako teknikaria
BALORAZIO BATZORDEA:	Ogasun Batzordean ordezkartza duten alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana (4) + Ekonomiako teknikaria
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	2017.urtean familia ugarien titulua dutenentzat Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordaintzeko.
KODEA:	Ekonomia diru-laguntza 2017
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	6.000,00 € 00800-15230-4800401 partidan.
HELBURUA:	Familia ugari batek eguneroko bizitza egiten den etxeko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordaintzeko finantziario laguntza edukitzea.
EPEA:	urriaren 1etik abenduaren 10era Bermeoko Erregistro Orokorrean Berhaz bulegoan. Ertzilla kalea 6-8.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	
ESKATZAILEAK:	Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak ez betetzea eta eskariak epez kanpo aurkeztea nahiko izango da ez onartzeko. Egindako deklarazioak benetako egoerekin bat ez izanez sortutako iruzurra, Tributu Iruzur bezala kalifikatuko da.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	<p>Diru-laguntzak jaso daikien kontzeptua da: Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota.</p> <p>Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak: Diru-laguntza edozein pertsona fisikok eskatu ahal izango dauz, baldin eta honako baldintza honek beteten badauz:</p> <ol style="list-style-type: none"> Familia ugarietako titulua edukitzea zerga sortzen den egunean, hau da 2017ko urtarrilaren 1ean. Eguneko bizitza egiten den etxea Bermeon izatea. Familia unitatearen edozein eratako gehieneko errenta estandarizatua 20.000,00 euroko edo gutxiagoa izatea. Diru-laguntza eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.



e) 2017ko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordainduta edukitzea.

Diru-laguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak formalizatzen, interesdunak 10 eguneko epea izango dau akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasoten danetik kontaktzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.

**PROZEDURA ETA
AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:**

Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.

Diru-laguntza eskaria, Udal eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo bete ondoren. Horrezaz ganera, honako dokumentu honeek aurkeztu beharko dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren ziurtagiria Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua.
- 2017ko urtarrilaren 1eko familiaren eroldaren ziurtagiria.
- Aurreko urteko errenta aitopenearen fotokopia konpultsatua eta han ez diren agertzen pentsio edo bestelako diru-sarreraren ziurtagiria.
- 2017ko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren ordainketaren justifikazioa. Ordaindutako erreziboaren fotokopia konpultsatua.

Programako diru-laguntza kopuru gehienezkoa: 2017ko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren ordainketaren %50.

Errenta estandarizatua zehazteko Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko Erkidegoko 154/2012 Dekretuan jasotako kontzeptuak eta koefizienteak aplikatuko dira.

Diru-laguntzaren ordainketa:

Diru-laguntza ez da ordainduko eskatzaileak beste diru-laguntzaren bat justifikatu barik badauka eta justifikatzeko epea amaituta badago.

Aurrekoetan jasotako diru-laguntza baten diru-kopurua atzera itzultzeko eskatuta badago eta itzuli barik, orduan be ez jako ordainduko.

Beste kasu guztietan ordainketa onartuta agertzen den datatik hilabeteko barruko epean ordainduko da.

Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak:

- Oinarri berezi honeetako arauak betetzea.

**ERLAZIONATUTAKO
AGIRIAK:**

